Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D. Enrique Ramos Vispo, D.ª Miren Albistur Garmendia y D. Ricardo Burutaran Ferre, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EAJ-PNV ETA PSE-EE TALDEEK AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ-PNV Y PSE-EE:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**AURKAKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**VOTOS EN CONTRA: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 8 – (5) EH BILDU, (3) PP.**

**7. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Udalbatzak, bi mila eta hemezortziko ekainaren hogeita batean egindako ohiko osoko bilkuran, IRABAZI DONOSTIA taldeak Eraikitako Hirigintza Ondarea Babesteko Plan Berezi aldatuaren ingurumen ebaluazioari buruz aurkeztutako mozio arrunta onartu zuen. Mozio horri zuzenketa bat egin zitzaion, EAJ/PNV eta Donostiako Sozialistak PSE-EE taldeek aurkeztua, lehenengo puntuari azken esaldia kentzekoa. Hori horrela, honela gelditu da onartutako testua:

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veintiuno de junio de dos mil dieciocho, aprobó la siguiente Moción Ordinaria presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre la evaluación ambiental de la modificación del PEPPUC, que incorpora una enmienda aprobada presentada por los Grupos EAJ/PNV y Socialistas Donostiarras PSE-EE, de modificación del punto primero eliminando la última frase del mismo, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*“Halako eztabaidak eragin dituzten hainbat eraispen egin eta gero (Torregrosa Etxea, Kanimar, Txomin, Mirakruz 19,…), hilabeteotan hazi egin da donostiarrek ondare eraikiaren aurrean duten sentsibilitatea. Horren erakusgarri dira Ancora elkarteak arkitektura bienalaren esparruan landutako "Galdu genuen hiria" erakusketara hurbildutako herritar kopuru handiak.*

*Hori kontuan hartuta, udal Gobernuak, orain urte bete, 2009an katalogatutako elementuak eta 2014an katalogotik kendutakoak aztertzeko txosten bat egitea eskatu zuen. Lan horren emaitza gisa, alegazio eta emendakin prozesu guztiz nahasi baten ostean, Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren Aldaketa formulatu zen.*

*“A raíz de varias demoliciones polémicas (Villa Torregrosa, Kanimar, Txomin, Miracruz 19,…), la sensibilidad de la ciudadanía donostiarra sobre el patrimonio construido ha ido creciendo a lo largo de los meses. Prueba de ello fueron las multitudinarias visitas a la exposición “La ciudad que perdimos”, realizada por Ancora en el marco de la bienal de arquitectura.*

*Todo esto ha llevado al Gobierno municipal, hace ahora un año, a encargar un informe para analizar la inclusión de los elementos catalogados en 2009 y descatalogados en 2014. Como resultado de este trabajo, y después de un caótico proceso de alegaciones y enmiendas, se formuló una*

*Modificación del Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido (PEPPUC).*

*Iragan otsailean, baztertu egin zen Udalbatzarako eguneko aztergai zerrendatik Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren aldaketaren behin betiko onespena. Espedientean Plan Bereziaren Ingurumen Ebaluaziorik ez izatea izan zen gaia baztertzeko arrazoia. Arrazoibide juridikoek adierazten zuten Plan Berezia ingurumen ebaluazioa egin gabe onartuz gero auzitegiek hura baliogabetzeko arrisku handia egon zitekeela errekurtsoren bat aurkeztuta. Plan Berezia onartzeko tramitearekin 2018ko ekainaren 6ra arte indarrean egongo den eraispenak atzeratzeko agindua eman zen.*

*El pasado mes de febrero, se retiró del orden del día del Pleno la aprobación definitiva de esta modificación del PEPPUC. El motivo de la retirada fue la falta, en el expediente, de una Evaluación Ambiental del Plan Especial. Las consideraciones jurídicas indicaban que, de aprobar el Plan Especial sin evaluación ambiental, este se expondría a un alto riesgo de anulación por parte de los tribunales en caso de recurso. Con el trámite de aprobación del Plan Especial se dictó una moratoria de demoliciones vigente hasta el 6 de junio de 2018.*

*Tamalez, ez dugu Ingurumen Ebaluazioari buruzko Eusko jaurlaritzaren albisterik. Hortaz, Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren Aldaketaren arabera babestekoak diren eraikin batzuk eraitsiak izateko eskaeraren xede izateko, eta, beraz, betiko galtzeko, benetako arriskua dago.*

*Desgraciadamente no tenemos noticias del Gobierno Vasco sobre la Evaluación Ambiental. Existe por lo tanto un riesgo real de que algunos edificios propuestos para su protección en la Modificación del PEPPUC sean objetos de petición de demolición y se pierdan definitivamente.*

*Premiazkoa da Ingurumen Ebaluazioa lortzea proposatutako Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren Aldaketa behin betiko onartu ahal izateko. Horregatik guztiagatik, honako mozio hau aurkezten du Irabazi Donostia Udal Taldeak:*

*Es urgente obtener la Evaluación Ambiental para poder aprobara definitivamente la Modificación del PEPPUC propuesta. Por todo ello, el grupo municipal Irabazi Donostia plantea la siguiente*

*MOZIO ARRUNTA*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*1.- Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari ahalik eta lasterren amaitu dezala Donostiako Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren Aldaketaren Ingurumen Ebaluazioaren izapidea”.==============================*

*1.- El Ayuntamiento en Pleno de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Vasco a culminar a la mayor brevedad el trámite de Evaluación Ambiental de la Modificación del Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido de San Sebastián”.===========*

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su

onetsita, Donostian, bi mila eta hemezortziko ekainaren hogeita zazpian.

orden en la ciudad de San Sebastián, a veintisiete de junio de dos mil dieciocho.

BITARTEKO ALKATEAK O. E. /.
V. º B. º DEL ALCALDE EN FUNCIONES,

Ernesto Gasco Gonzalo".

---------------

**8. Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, Urbieta kaleko eskolan jasotzen den hezkuntza zerbitzu publikoen hobekuntza dela eta.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Urbieta Kaleko Eskolan jasotzen den hezkuntza zerbitzu publikoen hobekuntza dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalbatza osatzen dugun taldeontzat xede garrantzitsua da gure hiriko hezkuntza eskaintza publikoari eustea eta horretarako, gure hezkuntza komunitatearen eskariei eta kezkei erantzuteko politikak sustatzea.

Lan-esparru horretan, Amara Berri eskola publikoaren zuzendaritzatik idatzi asko zuzendu dituzte Udalera Urbieta kaleko eraikinean Haur Hezkuntzan behar diren beharrak aintzat hartzea eta eraikinaren egokitzapen integrala eskatuz.

**8. Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la mejora de los servicios públicos de educación que se ofrecen en la escuela de la calle Urbieta.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, portavoz del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA, sobre la mejora de los servicios públicos de educación que se ofrecen en la escuela de la calle Urbieta.

JUSTIFICACIÓN

Los grupos que formamos el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián consideramos como uno de nuestros objetivos importantes mantener la oferta educativa pública de nuestra ciudad y, para ello, promover políticas que den respuesta a las demandas y preocupaciones de nuestra comunidad educativa.

En lo que respecta a este ámbito, la dirección de la escuela pública de Amara Berri ha dirigido numerosos escritos al Ayuntamiento, solicitando que se tengan en cuenta las necesidades que tiene la Educación Infantil en el edificio de la calle Urbieta y que se lleve a

cabo una adecuación integral del edificio.

Amara Berri eskola publikoaren hezkuntza proiektua ez da bakarrik ikasleentzat definitutako helburuetan oinarritzen, nahiz eta hauek izan muina. Eskola komunitateko pertsona zein taldearen hazkuntza proiektua da.

El proyecto educativo de la escuela pública Amara Berri no se basa solamente en los objetivos definidos de cara a los alumnos, aunque es cierto que eso constituye su parte esencial. Se trata de algo más: un proyecto educativo personal y colectivo, dirigido a toda la comunidad.

Gaur egun Amara Berrik 2, 3, 4 eta 5 urteko 13 gela ditu Urbieta kaleko eraikinean, guztira 275 ikasle. 0-2 urtekoentzako Haur-eskola zerbitzua irekitzeko proiektua egin zenean, Eusko Jaurlaritzako ordezkari sindikalak erabiltzen ari ziren espazioan zerbitzua kokatzea aurreikusi zen baino sindikatuentzako kokapen egokiagorik eman ez zenez, Haur-eskola proiektua aldatu behar izan zen, Amara Berriko Haur Hezkuntzako haurrek erabiltzen zuten patioan kokatuz. Horrek, urte hauetan guztietan, Amara Berriko Haur Hezkuntzako patio eremua asko mugatzera ekarri du.

Actualmente, Amara Berri tiene 13 aulas para niños de 2, 3, 4 y 5 años en el edificio de la calle Urbieta. En total, 275 alumnas y alumnos ocupan estas aulas. Cuando se elaboró el proyecto de apertura de un servicio de escuela infantil para niñas y niños de 0-2 años, se pensó en situarlo en el espacio que, en ese momento, utilizaba la representación sindical del Gobierno Vasco, pero, como no se ofreció una ubicación más adecuada a los sindicatos, tuvo que modificarse el proyecto de escuela infantil y ubicar el nuevo servicio en el patio utilizado por Educación Infantil de Amara Berri. Esto ha provocado, durante todos estos años, una reducción importante del espacio disponible en este patio.

Amara Berri eskola publikoak, beraz, espazioa behar du beste zenbait herri eta eskolatan eredugarria den hezkuntza proiektua sendotzeko, eta espazio hori Eusko Jaurlaritzako ordezkari sindikalek erabiltzen duten espazioan dago. Espazio hori berreskuratuta, Amara Berri eskola publikoak Haur-eskolen zerbitzuak egokitu eta auzoan hezkuntza zerbitzu publikoa kalitatezkoa, berritzailea eta etorkizun handikoa bermatuko luke.

Por tanto, la escuela pública Amara Berri necesita espacio para reforzar un proyecto educativo modélico que ya se practica en otras localidades y escuelas. Y este espacio es, precisamente, el que utiliza la representación sindical del Gobierno Vasco. Si se recuperara este espacio, la escuela pública Amara Berri podría adecuar los servicios correspondientes a las Escuelas Infantiles y garantizar, en el propio barrio, un servicio educativo público de calidad, innovador y con un gran futuro por delante.

Amara auzoko herritarren bidezko nahia da kalitatezko hezkuntza zerbitzu publiko bat izatea. Eta hezkuntza eskaintza publikoa hobetzeko, Haur eta Lehen Hezkuntzatik hasi behar da, eta familiek proiektu erakargarria,

Es justo deseo de la ciudadanía del barrio de Amara poder contar con un servicio de educación de calidad. Y, para mejorar la oferta educativa pública, hay que comenzar por la Educación Infantil y Primaria, y garantizar que

berritzailea, kalitatezkoa eta baliabide egokiz ondo hornitua izango dutela bermatu behar da. Horixe da mozio arrunt honen bidez lortu nahi duguna, hain zuzen ere.

las familias dispondrán de un proyecto atractivo, innovador, de calidad y bien equipado con los recursos adecuados. Y eso es, precisamente, lo que queremos conseguir con esta moción ordinaria.

Hori horrela, behean sinatzen dugun zinegotziak honako mozio arrunt hau aurkezten dugu:

Por consiguiente, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

MOZIO ARRUNTA:

MOCIÓN ORDINARIA:

1. Donostiako Udalbatzak Hezkuntza Sailari eskatzen dio har ditzala neurri egokiak Donostiako Urbieta kalean dauden Eusko Jaurlaritzako ordezkari sindikalei kokapen egoki bat aurkitzeko, beren beharrak aseko dituena, Udalbatzak bere lankidetza osoa eskaintzen diolarik horretarako.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Departamento de Educación que adopte las medidas necesarias para poder ofrecer una ubicación adecuada, y que responda a sus necesidades, a la representación sindical del Gobierno Vasco, que actualmente se encuentra en la calle Urbieta de San Sebastián. El Pleno se pone a disposición del Departamento para colaborar con él en la búsqueda de esa ubicación.

2. Donostiako Udalbatzak Hezkuntza Sailari eskatzen dio behin Eusko Jaurlaritzako ordezkari sindikalek erabiltzen dituzten instalazioak libre geratutakoan, Udalarekin eta hezkuntza komunitatearekin elkarlanean adostu daitezela beharrezkoak diren berregituratzeak kalitatezko hezkuntza zerbitzuak gauzatu eta eskaintza hobetzen jarraitzeko.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Departamento de Educación que, una vez que estén libres las instalaciones que actualmente ocupa la representación sindical del Gobierno Vasco, acuerde, en colaboración con el Ayuntamiento y con la comunidad educativa, las reestructuraciones que sean necesarias para que los servicios educativos sean de calidad y para que la oferta educativa siga mejorando.

Donostian, 2018ko ekainaren 1ean

San Sebastián, 1 de junio de 2018

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko bozeramailea”.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
portavoz del grupo municipal de EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Naiara Sampedro Perez andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Idazkari jaunak, Amaia Martin Garin andreak, Maria Luisa Garcia Gurruchaga andreak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Naiara Sampedro Perez, D.ª Miren Albistur Garmendia, Sr. Secretario, D.ª Amaia Martin Garin, D.ª María Luisa García Gurruchaga y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**UDAL TALDE GUZTIEK AURKEZTUTAKO 1.GO ZUZENKETA ADOSTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA TRANSACCIONADA N.º 1 PRESENTADA POR TODOS LOS GRUPOS MUNICIPALES:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**UDAL TALDE GUZTIEK AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETA ADOSTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA TRANSACCIONADA N.º 2 PRESENTADA POR TODOS LOS GRUPOS MUNICIPALES:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**PSE-EE TALDEAK AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA PRESENTADA POR EL GRUPO PSE-EE:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK:10 – (7) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ-PNV, (5) EH BILDU.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (7) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ-PNV, (5) EH BILDU.**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**8. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

Bi mila eta hemezortziko ekainaren hogeita batean izan zuen ohiko osoko bilkuran, Urbieta kaleko eskolan jasotzen den hezkuntza zerbitzu publikoen hobekuntza dela-eta EH Bildu taldeak eginiko mozio arrunt bat onartu zuen Udalbatzak, bi mozio adostu onartu eta erantsita, EAJ, Sozialista Donostiarrak-PSE-EE, EH Bildu, PP eta Irabazi Donostia taldeek elkarrekin eginak. Estreinako aldaketa, erabaki zatiko 1. puntua aldatzea da, eta bigarrena, erabaki zatiko 2. puntua ordezteko. Horrenbestez, hauxe da azkenean onartu zuten testua:

*"Donostiako Udalbatza osatzen dugun taldeontzat xede garrantzitsua da gure hiriko hezkuntza eskaintza publikoari eustea eta horretarako, gure hezkuntza komunitatearen eskariei eta kezkei erantzuteko politikak sustatzea.*

*Lan-esparru horretan, Amara Berri eskola publikoaren zuzendaritzatik idatzi asko zuzendu dituzte Udalera Urbieta kaleko eraikinean Haur Hezkuntzan behar diren beharrak aintzat hartzea eta eraikinaren egokitzapen integrala eskatuz.*

*Amara Berri eskola publikoaren hezkuntza proiektua ez da bakarrik ikasleentzat definitutako helburuetan oinarritzen, nahiz eta hauek izan*

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veintiuno de junio de dos mil dieciocho, aprobó la siguiente Moción Ordinaria presentada por el Grupo EH BILDU sobre la mejora en los servicios públicos de educación que se ofrecen en la escuela de la calle Urbieta, que incorpora dos enmiendas transaccionadas aprobadas, presentadas por los Grupos EAJ/PNV, Socialistas Donostiarras PSE-EE, EH BILDU, PP e IRABAZI DONOSTIA, la 1ª de modificación del punto nº1 de la parte resolutiva y la segunda, de sustitución del punto 2º de la parte resolutiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*"Los grupos que formamos el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián consideramos como uno de nuestros objetivos importantes mantener la oferta educativa pública de nuestra ciudad y, para ello, promover políticas que den respuesta a las demandas y preocupaciones de nuestra comunidad educativa.*

*En lo que respecta a este ámbito, la dirección de la escuela pública de Amara Berri ha dirigido numerosos escritos al Ayuntamiento, solicitando que se tengan en cuenta las necesidades que tiene la Educación Infantil en el edificio de la calle Urbieta y que se lleve a cabo una adecuación integral del edificio.*

*El proyecto educativo de la escuela pública Amara Berri no se basa solamente en los objetivos definidos de cara a los alumnos,*

*muina. Eskola komunitateko pertsona zein taldearen hazkuntza proiektua da.*

*aunque es cierto que eso constituye su parte esencial. Se trata de algo más: un proyecto educativo personal y colectivo, dirigido a toda la comunidad.*

*Gaur egun Amara Berrik 2, 3, 4 eta 5 urteko 13 gela ditu Urbieta kaleko eraikinean, guztira 275 ikasle. 0-2 urtekoentzako Haur-eskola zerbitzua irekitzeko proiektua egin zenean, Eusko Jaurlaritzako ordezkari sindikalak erabiltzen ari ziren espazioan zerbitzua kokatzea aurreikusi zen baino sindikatuentzako kokapen egokiagorik eman ez zenez, Haur-eskola proiektua aldatu behar izan zen, Amara Berriko Haur Hezkuntzako haurrek erabiltzen zuten patioan kokatuz. Horrek, urte hauetan guztietan, Amara Berriko Haur Hezkuntzako patio eremua asko mugatzera ekarri du.*

*Actualmente, Amara Berri tiene 13 aulas para niños de 2, 3, 4 y 5 años en el edificio de la calle Urbieta. En total, 275 alumnas y alumnos ocupan estas aulas. Cuando se elaboró el proyecto de apertura de un servicio de escuela infantil para niñas y niños de 0-2 años, se pensó en situarlo en el espacio que, en ese momento, utilizaba la representación sindical del Gobierno Vasco, pero, como no se ofreció una ubicación más adecuada a los sindicatos, tuvo que modificarse el proyecto de escuela infantil y ubicar el nuevo servicio en el patio utilizado por Educación Infantil de Amara Berri. Esto ha provocado, durante todos estos años, una reducción importante del espacio disponible en este patio.*

*Amara Berri eskola publikoak, beraz, espazioa behar du beste zenbait herri eta eskolatan eredugarria den hezkuntza proiektua sendotzeko, eta espazio hori Eusko Jaurlaritzako ordezkari sindikalek erabiltzen duten espazioan dago. Espazio hori berreskuratuta, Amara Berri eskola publikoak Haur-eskolen zerbitzuak egokitu eta auzoan hezkuntza zerbitzu publikoa kalitatezkoa, berritzailea eta etorkizun handikoa bermatuko luke.*

*Por tanto, la escuela pública Amara Berri necesita espacio para reforzar un proyecto educativo modélico que ya se practica en otras localidades y escuelas. Y este espacio es, precisamente, el que utiliza la representación sindical del Gobierno Vasco. Si se recuperara este espacio, la escuela pública Amara Berri podría adecuar los servicios correspondientes a las Escuelas Infantiles y garantizar, en el propio barrio, un servicio educativo público de calidad, innovador y con un gran futuro por delante.*

*Amara auzoko herritarren bidezko nahia da kalitatezko hezkuntza zerbitzu publiko bat izatea. Eta hezkuntza eskaintza publikoa hobetzeko, Haur eta Lehen Hezkuntzatik hasi behar da, eta familiek proiektu erakargarria, berritzailea, kalitatezkoa eta baliabide egokiz ondo hornitua izango dutela bermatu behar da. Horixe da mozio arrunt honen bidez lortu nahi duguna, hain zuzen ere.*

*Es justo deseo de la ciudadanía del barrio de Amara poder contar con un servicio de educación de calidad. Y, para mejorar la oferta educativa pública, hay que comenzar por la Educación Infantil y Primaria, y garantizar que las familias dispondrán de un proyecto atractivo, innovador, de calidad y bien equipado con los recursos adecuados. Y eso es, precisamente, lo que queremos conseguir*

*con esta moción ordinaria.*

*Hori horrela, behean sinatzen dugun zinegotziak honako mozio arrunt hau aurkezten dugu:*

*Por consiguiente, la concejala abajo firmante presenta la siguiente*

*MOZIO ARRUNTA*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*1.- Donostiako Udalbatzak Hezkuntza Sailari eskatzen dio har ditzala neurri egokiak, 2019-2020 ikasturtea hasi aurretik kokapen egoki bat aurkitzeko Donostiako Urbieta kalean dauden Eusko Jaurlaritzako ordezkari sindikalei, haien beharrak asetzeko moduan. Konponbide egoki bat bilatzeko laguntza eskaintzen dio Udalbatzak Hezkuntza Sailari.*

*1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián solicita al Departamento de Educación junto a la representación sindical del Gobierno Vasco, que actualmente se encuentran ubicada en la calle Urbieta de San Sebastián, que adopten las medidas necesarias, antes de que de inicio el curso escolar 2019-2020, para ofrecer y disponer de una ubicación que responda a las necesidades de ésta. El Ayuntamiento Pleno se ofrece a colaborar con el departamento de Educación para la búsqueda de una solución satisfactoria.*

*2.- Donostiako Udalbatzak Hezkuntza Sailari eskatzen dio berregituraketa egokiak adostu eta erabakitzeko Amara-Berri ikastetxearekin, Urbieta haur eskolarekin eta hezkuntza komunitatearekin, hezkuntza zerbitzu publiko hobea eta kalitatekoa eskaintzeko”.* ===========================

*2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián solicita al Departamento de Educación que consensúe y acuerde con el Centro Amara-Berri, la haurreskola Urbieta y la comunidad educativa las restructuraciones que sean adecuadas para ofrecer un mejor servicio educativo público y de calidad”.* ==================================

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hemezortziko ekainaren hogeita zazpian.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a veintisiete de junio de dos mil dieciocho.

BITARTEKO ALKATEAK O. E. /.

V. º B. º DEL ALCALDE EN FUNCIONES,

Ernesto Gasco Gonzalo”.

---------------

**9. Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, Francisco Escudero kontserbatorio profesionalak dituen beharrak direla-eta.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNTA aurkezten du, Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionalak dituen beharrak direla-eta.

JUSTIFIKAZIOA

1877an Donostiako Udalak Solfeo Eskola sortu zuen, Juan José Santesteban edo eta Raimundo Sarriegi irakasle zituelarik. Bi urte geroago, 1879an, eskola nukleo bezala hartuz, Musika Udal Akademia ofizialki sortu zen. 1936ko otsailaren 28an Instrukzio Publiko-Ministerioak baliotasuna aitortu zion eskolari eta Oinarrizko Graduko Kontserbatorio bat bihurtzera pasa zen. Hiru urte geroago, 1939ko apirilaren 15ean Goi Graduko ikasketetarako baliotasuna ere aitortu zitzaion.

1998an Kontserbatorioa Eusko Jaurlaritzaren Heziketa Departamentuaren irakaskuntzetako irakaspenetako sare publikoan sartu zen eta prozesu honek amaiera eman zion 119 urteko udal kudeaketari. 2000.urtean Oinarrizko Gradua Kontserbatoriora gehitu zen eta 2002/2003 ikasturtetik aurrera Musika-Batxilergoa ezarri zen, eskaintzen duen herriko zentro gutxietako batean bihurtuz.

2004ko Irailaren 21eko Ordenaren Aginduaren arabera Musika Kontserbatorioa BOPV-ean

**9. Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las necesidades del conservatorio profesional de música Francisco Escudero.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, portavoz del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presento la siguiente MOCIÓN ORDINARIA sobre las necesidades del Conservatorio Profesional de Música Francisco Escudero.

JUSTIFICACIÓN

En 1877 el Ayuntamiento de San Sebastián creó la Escuela de Solfeo, que tenía como profesores a Juan José Santesteban o Raimundo Sarriegi. Dos años después, tomando como núcleo la escuela, se instituyó oficialmente la Academia Municipal de Música. En 1936 el Ministerio de Instrucción Pública reconoce al Centro la validez de los estudios en él impartidos con lo que pasa a convertirse en Conservatorio de Enseñanzas Elementales. Tres años después, el 15 de abril de 1939 le reconocen la validez para los Estudios de Grado Superior.

En 1998, el Conservatorio se integra en la red pública de enseñanzas del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, y ese proceso puso fin a una gestión municipal de 119 años. En el 2000 se incorporan las Enseñanzas Elementales al conservatorio, y , desde el curso 2002-2003, se implanta el Bachiller Musical, y se convierte en uno de los pocos centros que lo oferta.

La Orden de 21 de septiembre de 2004, publicada en el BOPV, aprueba el cambio de

argitaratua, Francisco Escudero Kontserbatorioa deitzera pasatu zen, musikari gipuzkoarra omenduz.

denominación específica del Conservatorio de Música de Grado Medio, que pasa a denominarse Conservatorio Francisco Escudero, en homenaje al músico guipuzcoano.

Gaur egun Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren menpe, “Francisco Escudero” Musika Kontserbatorio Profesionalak araututako OInarrizko eta Profesional Irakaskuntzak eskaintzeaz gain, eskolaz kanpoko jarduerak eta ikastaroak antolatzen ditu, ikasleriaren curriculuma sendotzeko helburuarekin.

Actualmente, dependiente del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, el Conservatorio profesional de Música Francisco Escudero, además de impartir enseñanza básica reglada y profesional, organiza jornadas y cursillos, con objeto de reforzar el currículo del alumnado.

Donostiako Udalak Eusko Jaurlaritzari Easo kaleko 45. Zenbakiko eraikina 1998ko abenduaren 15ean dohaintzan eman zion. 20 urte hauetan adabakiak jartzen ibili behar izan da bata bestearen atzetik, eta memento honetan egoitzak muga handiak ditu horrelako ikasketa zentro batek duen jarduera modu egokian garatzeko.

El Ayuntamiento de San Sebastián donó el 15 de diciembre de 1998 el edificio número 45 de la calle Easo al Gobierno Vasco. En estos 20 años, continuamente han tenido que estar poniendo remiendos, uno tras otro, y, en estos momentos, la sede presenta grandes limitaciones para poder desarrollar las actividades que lleva a cabo un centro de enseñanza de ese tipo.

Jakin badakigu hezkuntza alorreko organo eskudunak –zehazki, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak– bermatu behar duela zerbitzu hori, baina Donostiako Udalak ere babestu behar ditu hiritarren eta hiriaren interes eta eskubideak.

Sabemos que el órgano competente en educación, es decir el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco, es quien debe garantizar ese servicio, pero también el Ayuntamiento de San Sebastián debe proteger los intereses y derechos de la ciudadanía y de la ciudad.

Halaber, bistakoa da tartean dauden erakundeek eta hezkuntza komunitateak elkarrekin lan egin behar dutela, horrexegatik, hauxe da gure MOZIO ARRUNTA:

Además, resulta evidente que las instituciones implicadas y la comunidad escolar tienen que colaborar, razón por la que presentamos la siguiente

MOZIO ARRUNTA

MOCIÓN ORDINARIA

1.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak Hezkuntza Sailari eskatzen dio, Francisco Eskudero Kontserbatorioko Zuzendaritza eta Organo Gorenarekin batera, aztertu dezala Kontserbatorioak bere curriculuma duintasunez gauzatzeko baldintza eta kokapen

1. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián solicita al Departamento de Educación que, junto a la Dirección y el Órgano Máximo de Representación del Conservatorio Francisco Escudero, analice cuáles podrían ser las condiciones y el emplazamiento más

egokiak zeintzuk liratekeen eta, ondorioz, aurkitzeko zentroaren beharrak aseko dituen espazioa, Udalbatzak bere lankidetza osoa eskaintzen diolarik horretarako.

adecuado para que el conservatorio pueda desarrollar su currículo con dignidad y que, en consecuencia, encuentre un espacio que satisfaga las necesidades del centro, para lo que el Ayuntamiento Pleno ofrece su total colaboración.

2.-Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari, behin Udalarekin eta kontserbatorioarekin bertako curriculuma duintasunez garatzeko proiektua adostu denean, ahalik eta azkarren garatu dezala proiektua eta doitu dezala aipatutako proiektua gauzatzeko aurrekontua.

2. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Gobierno Vasco a que, una vez que consensúe con el Ayuntamiento y el Conservatorio el proyecto para desarrollar dignamente el currículo, desarrolle lo antes posible el proyecto y ajuste el prepuesto preciso para materializar dicho proyecto.

Donostian, 2018ko ekainaren 1ean

En San Sebastián, a 1 de junio de 2018

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko bozeramailea”.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
portavoz del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Naiara Sampedro Perez andreak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak, Jon Insausti Maisterrena jaunak eta Amaia Martin Garin andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Naiara Sampedro Perez, D. José María Murguiondo Casal, D. Ernesto Gasco Gonzalo, D. Jon Insausti Maisterrena y D.ª Amaia Martín Garín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**IRABAZI DONOSTIA TALDEAK AURKEZTUTAKO 1.GO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 PRESENTADA POR EL GRUPO IRABAZI DONOSTIA.**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**IRABAZI DONOSTIA TALDEAK AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 2 PRESENTADA POR EL GRUPO IRABAZI DONOSTIA.**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.**

**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.**

**9. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Udalbatzak, bi mila eta hemezortziko ekainaren hogeita batean egindako ohiko osoko bilkuran, onartu zuen EH BILDU taldeak aurkeztutako mozio arrunt bat, Francisco Escudero musika kontserbatorio profesionalaren beharrei buruzkoa. Mozio horri zuzenketa bat aurkeztu zion IRABAZI DONOSTIA taldeak, erabaki-zatiko lehen puntuari esaldi bat eranstekoa. Mozioa onartuta, honela gelditu da behin betiko testua:

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veintiuno de junio de dos mil dieciocho, aprobó la siguiente Moción Ordinaria presentada por el Grupo EH BILDU sobre las necesidades del conservatorio profesional de música Francisco Escudero, que incorpora una enmienda aprobada, presentada por el Grupos IRABAZI DONOSTIA, de adición de una frase al primer punto de la parte resolutiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*“1877an Donostiako Udalak Solfeo Eskola sortu zuen, Juan José Santesteban edo eta Raimundo Sarriegi irakasle zituelarik. Bi urte geroago, 1879an, eskola nukleo bezala hartuz, Musika Udal Akademia ofizialki sortu zen. 1936ko otsailaren 28an Instrukzio Publiko-Ministerioak baliotasuna aitortu zion eskolari eta Oinarrizko Graduko Kontserbatorio bat bihurtzera pasa zen. Hiru urte geroago, 1939ko apirilaren 15ean Goi Graduko ikasketetarako baliotasuna ere aitortu zitzaion.*

*“En 1877 el Ayuntamiento de San Sebastián creó la Escuela de Solfeo, que tenía como profesores a Juan José Santesteban o Raimundo Sarriegi. Dos años después, tomando como núcleo la escuela, se instituyó oficialmente la Academia Municipal de Música. En 1936 el Ministerio de Instrucción Pública reconoce al Centro la validez de los estudios en él impartidos con lo que pasa a convertirse en Conservatorio de Enseñanzas Elementales. Tres años después, el 15 de*

*abril de 1939 le reconocen la validez para los Estudios de Grado Superior.*

*1998an Kontserbatorioa Eusko Jaurlaritzaren Heziketa Departamentuaren irakaskuntzetako irakaspenetako sare publikoan sartu zen eta prozesu honek amaiera eman zion 119 urteko udal kudeaketari. 2000.urtean Oinarrizko Gradua Kontserbatoriora gehitu zen eta 2002/2003 ikasturtetik aurrera Musika-Batxilergoa ezarri zen, eskaintzen duen herriko zentro gutxietako batean bihurtuz.*

*En 1998, el Conservatorio se integra en la red pública de enseñanzas del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, y ese proceso puso fin a una gestión municipal de 119 años. En el 2000 se incorporan las Enseñanzas Elementales al conservatorio, y , desde el curso 2002-2003, se implanta el Bachiller Musical, y se convierte en uno de los pocos centros que lo oferta.*

*2004ko Irailaren 21eko Ordenaren Aginduaren arabera Musika Kontserbatorioa BOPV-ean argitaratua, Francisco Escudero Kontserbatorioa deitzera pasatu zen, musikari gipuzkoarra omenduz.*

*La Orden de 21 de septiembre de 2004, publicada en el BOPV, aprueba el cambio de denominación específica del Conservatorio de Música de Grado Medio, que pasa a denominarse Conservatorio Francisco Escudero, en homenaje al músico guipuzcoano.*

*Gaur egun Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren menpe, "Francisco Escudero" Musika Kontserbatorio Profesionalak arautútako OInarrizko eta Profesional Irakaskuntzak eskaintzeaz gain, eskolaz kanpoko jarduerak eta ikastaroak antolatzen ditu, ikasleriaren curriculuma sendotzeko helburuarekin.*

*Actualmente, dependiente del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, el Conservatorio profesional de Música Francisco Escudero, además de impartir enseñanza básica reglada y profesional, organiza jornadas y cursillos, con objeto de reforzar el currículo del alumnado.*

*Donostiako Udalak Eusko Jaurlaritzari Easo kaleko 45. Zenbakiko eraikina 1998ko abenduaren 15ean dohaintzan eman zion. 20 urte hauetan adabakiak jartzen ibili behar izan da bata bestearen atzetik, eta memento honetan egoitzak muga handiak ditu horrelako ikasketa zentro batek duen jarduera modu egokian garatzeko*

*El Ayuntamiento de San Sebastián donó el 15 de diciembre de 1998 el edificio número 45 de la calle Easo al Gobierno Vasco. En estos 20 años, continuamente han tenido que estar poniendo remiendos, uno tras otro, y, en estos momentos, la sede presenta grandes limitaciones para poder desarrollar las actividades que lleva a cabo un centro de enseñanza de ese tipo.*

*Jakin badakigu hezkuntza alorreko organo eskudunak –zehazki, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak– bermatu behar duela zerbitzu hori, baina Donostiako Udalak ere babestu behar ditu hiritarren eta hiriaren interes eta eskubideak.*

*Sabemos que el órgano competente en educación, es decir el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco, es quien debe garantizar ese servicio, pero también el Ayuntamiento de San Sebastián debe proteger los intereses y*

*derechos de la ciudadanía y de la ciudad.*

*Halaber, bistakoa da tartean dauden erakundeek eta hezkuntza komunitateak elkarrekin lan egin behar dutela, horrexegatik, hauxe da gure MOZIO ARRUNTA:*

*Además, resulta evidente que las instituciones implicadas y la comunidad escolar tienen que colaborar, razón por la que presentamos la siguiente*

*MOZIO ARRUNTA*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*1. Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak Hezkuntza Sailari eskatzen dio, Francisco Escudero Kontserbatorioko Zuzendaritza eta Organo Gorenarekin batera, azter dezala, 2019-2020 ikasturtea hasi aurretik, Kontserbatorioak bere curriculuma duintasunez gauzatzeko baldintza eta kokapen egokiak zeintzuk liratekeen, eta, ondorioz, aurki dezala zentroaren beharrak aseko dituen espazio bat, Udalbatzak bere lankidetza osoa eskaintzen diolarik horretarako.*

*1. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián solicita al Departamento de Educación que, junto a la Dirección y el Órgano Máximo de Representación del Conservatorio Francisco Escudero, y antes de que inicie el próximo curso 2019-2020, analice cuáles podrían ser las condiciones y el emplazamiento más adecuado para que el conservatorio pueda desarrollar su currículo con dignidad y que, en consecuencia, encuentre un espacio que satisfaga las necesidades del centro, para lo que el Ayuntamiento Pleno ofrece su total colaboración.*

*2.-Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari, behin Udalarekin eta kontserbatorioarekin bertako curriculuma duintasunez garatzeko proiektua adostu denean, ahalik eta azkarren garatu dezala proiektua eta doitu dezala aipatutako proiektua gauzatzeko aurrekontua"* ==========================

*2. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Gobierno Vasco a que, una vez que consensúe con el Ayuntamiento y el Conservatorio el proyecto para desarrollar dignamente el currículo, desarrolle lo antes posible el proyecto y ajuste el prepuesto preciso para materializar dicho proyecto".*==========================

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hemezortziko ekainaren hogeita zazpian.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a veintisiete de junio de dos mil dieciocho.

BITARTEKO ALKATEAK O. E. /.

V. º B. º DEL ALCALDE EN FUNCIONES,

Ernesto Gasco Gonzalo”.

---------------

II.2

KONTROL MOZIOAK

II.2

MOCIONES DE CONTROL

1.go eta 15. kontrol mozioak batera eztabaidatuko dira.

Se tratan conjuntamente las mociones de control n.º 1 y n.º 15.

**II.2.1. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Saguesen egoera dela eta.**

“Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Saguesen egoera dela eta, Udalbatzaren Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Lurralde Antolamendurako Batzordean 2018ko ekainaren 11ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Nestor Basterretxearen Bakearen Usoa Amara Berritik Saguesera eraman zenean, aurreko Udal Gobernuak Sagues hobetzeko apustua egin zuen. Urbanizazio proiektua egin eta onartu zuen, baina nahiz eta aurrekontua izan, Udal Gobernu berriak baztertu egin zuen.

Beste hotel bat eta oinezkoentzako Monpas-Sagues pasarela bermatu nahi omen zituen.

**II.2.1. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre la situación de Sagües.**

“Josu Mirena Ruiz, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en pleno, consecuencia de la interpelación substanciada ante la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio, celebrada el pasado 11 de junio de 2018, sobre la situación de Sagüés.

JUSTIFICACIÓN

Con motivo del traslado de la Paloma de la Paz de Néstor Basterretxea desde Amara Berri a Sagüés, el anterior Gobierno Municipal apostó por la mejora de aquel entorno. Así, redactó y aprobó el correspondiente proyecto de urbanización, y, a pesar de la existencia de presupuesto, el nuevo Gobierno Municipal lo rechazó.

Manifestaban que pretendían garantizar un nuevo hotel y la pasarela peatonal Monpas-Sagüés.

Gauzak horrela, gaur egun, ez dago inongo proiekturik Saguesen. Arkitektura Eskolarekin elkarlanean proiektuen erakusketa bat antolatu da -parte hartu duten irakasle-ikasle guztiei haien lana eskertu behar diegu-, baina hau aurrera eramateko Udal Gobernuak bi urte behar izan ditu.

Como consecuencia de ello, a día de hoy no existe ningún proyecto para Sagüés. Se ha organizado una exposición de proyectos en colaboración con la Escuela de Arquitectura — y debemos agradecer al alumnado y al profesorado que ha participado el trabajo realizado—, pero tenemos que recordar que el Gobierno Municipal ha necesitado dos años para llevarla a cabo.

Aurreko hitz hauek duela urtebete idatzi nituen.

Las siguientes palabras las redacté hace un año:

2016ko aurrekontuan bi partida azaltzen ziren Sagueserako, hainbat urtetarako: 2016rako 60.000 eta 2017rako 640.000 euro. Ondorengo aurrekontuan, 2017koan, berriz ere, hainbat urtetarako partidak azaltzen ziren: 2017rako 1.572.653 eta 2018rako 673.994 euro. Azkeneko aurrekontuan, 2018koan, ondoko partida hauek onartu ziren: 2018rako 500.000, 2019rako 673.994,15 eta 2020rako 972.653,02. Zer egin du benetan Udal Gobernuak hiru urteotan? Ezertxo ere ez. Zer kudeaketa mota da hau?

Hay que tener en cuenta que en el presupuesto del 2016 se recogieron dos partidas plurianuales para Sagüés: 60.000 euros para el 2016 y 640.000 euros para el 2017. En el presupuesto aprobado para el 2017 también se recogían varias partidas plurianuales: 1.572.653 euros para el 2017 y 673.994 euros para el 2018. En el último presupuesto, el correspondiente a 2018, se aprobaron las siguientes partidas: 500.000 € para 2018, 673.994,15 € para 2019 y 972.653,02 € para 2020. ¿Pero, realmente, qué es lo que ha ejecutado el Gobierno Municipal durante estos tres años? Absolutamente nada. ¿Qué clase de gestión es esta?

Aurreko Udal Gobernuak Sagueserako proiektua onartua zuen 750.000 euroko aurrekontuarekin. Udal gobernu honek bertan behera utzi zuen egitasmo hura, eta oraindik ere horretan gaude; hau da, proiekturik gabe. Gainera, hiru urte hauetan inongo hobekuntzarik ez du egin.

El Gobierno Municipal anterior ya había aprobado un proyecto, con una consignación presupuestaria de 750.00 euros. El gobierno actual lo rechazó, y todavía estamos en esas, es decir, sin proyecto. Además, durante estos tres años tampoco ha realizado ninguna actuación de mejora.

Lurralde Antolamendurako Batzordearen ekainaren 11ko bileran, eremuaren plan berezia egingo zela adierazi zuen Eneko Goia alkateak. Agintaldi honetan Jose Miguel Barandiaran kaleko espaloia zabalduko omen dute, baina beste hobekuntzarik ez zuen

En la Comisión de Desarrollo y Planificación Territorial celebrada el pasado 11 de junio el alcalde, Eneko Goia, manifestó que se redactará un plan especial para el citado ámbito. Parece ser que durante la presente legislatura se ampliará la acera de la calle

aipatu alkateak.

Hori dela-eta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Sagueserako Plan Bereziaren zirriborroa urte bukaera baino lehen herritarrei eta udal taldeoi aurkez diezagula.

Donostian, 2018ko ekainaren 14an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Jose Miguel Barandiaran, pero no mencionó ninguna mejora más.

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que presente el borrador del Plan Espacial de Sagüés, tanto a la ciudadanía como a los grupos municipales, antes de la finalización del año.

Donostian, 2018ko ekainaren 14an

Josu Mirena Ruiz Martin,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Josu Ruiz Martín, D. Loïc Alejandro, D.ª Miren Albistur Garmendia, D. Ernesto Gasco Gonzalo y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.15. Kontrol mozioa PP Taldeak Saguesi buruz egina.**

“Miren Albistur Garmendia Talde Popularreko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzari. Mozioa 2018ko ekainaren 11n Saguesi buruz Lurralde

**II.2.15. Moción de control que presenta el Grupo PP sobre Sagües.**

“Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada

Garapen eta Planifikazio Batzordearen bileran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den ostiralean, maiatzak 18, bilera bat egin zen udaletxeko Udalbatza Aretoan, eta bilera horretan Sagues inguruan zer egin argitzeko irizpide batzuk aurkeztu zituzten Euskal Herriko Unibertsitateko Arkitektura Eskolako ordezkariek. Izan ere, Sagues ingurua birpentsatzeko eta berregiteko estrategiak planteatzeko proposamena egin zien Gobernu Taldeak 2016an.

Azalpenak eman ondoren, eta ondorio gisa, Arkitektura Eskolako ordezkari batek adierazi zuen estrategia integral bat behar dela inguru hori zehazteko. Horretarako Udaleko sail desberdinen arteko elkarlana beharrezkoa dela esan zuen, eta Saguesi buruzko Plan Berezi bat egin baino lehen eman beharreko urratsa dela hori.

Bilera amaitzeko, hiriko alkateak adierazi zuen Saguesi buruzko Plan Berezi bat egin behar dela lehenengo fasean, eta egungo Plan Orokorra moldatu behar dela. Aldi berean, gune horretan unean uneko jarduketa txiki batzuk egin behar direla uste du alkateak. Egungo Udal Gobernuaren Gobernu Programak aurreikusitakoarekin (87. orrialdea) talka egiten du posizio horrek.

Batzorde horretan alkateak zera erantzun zuen: inguru horretako jarduketa integralaren aurkakoak ez diren bi jarduketa xume egingo zirela. Hala ere, etxebizitzetatik gertuen dauden aparkalekuak kentzeko jarduketa bat egingo zela jakinarazi zuen soilik. Bigarren jarduketari buruz ez zuen ezertxo ere esan.

ante la Comisión de Desarrollo y Planificación de Territorio, celebrada el día 11 de Junio de 2018, relativa a Sagüés.

JUSTIFICACIÓN

El pasado viernes, 18 de mayo, tuvo lugar una reunión en el Salón de Plenos del Ayuntamiento, en la que representantes de la Escuela de Arquitectura de la UPV presentaron una serie de criterios para resolver el área de Sagüés, al hilo de la propuesta que le encargó el Equipo de Gobierno en 2016 para plantear estrategias sobre cómo repensar y rehacer el área de Sagüés.

Una vez dadas las explicaciones, una de las representantes de la Escuela de Arquitectura señaló, como conclusión, que hace falta una estrategia integral para definir el ámbito, y que pasa por la necesaria colaboración entre diversos Departamentos del Ayuntamiento, como paso previo a la elaboración de un Plan Especial sobre Sagüés.

Como colofón a la reunión, el Alcalde de la ciudad señaló que la primera fase, por tanto, es la elaboración de un Plan Especial para Sagúés, y que hay que modificar el Plan General actual. Paralelamente, el Alcalde ve necesario realizar pequeñas actuaciones puntuales en la zona. Esta posición choca, frontalmente, con la previsión que contiene el Gobierno Municipal actual (PNV y PSE) en su Programa de Gobierno (página 87).

La respuesta del Alcalde en la Comisión fue que se iban a realizar dos actuaciones sencillas que no choquen con la actuación integral a realizar en este entorno. Sin embargo, sólo anunció una intervención que consistiría en quitar los aparcamientos más cercanos a las viviendas. Nada dijo de la segunda intervención.

Legegintzaldiaren hirugarren urtean gaude. Gobernu Taldeak Saguesen egitekoa den jarduketa deskribatua du bere programan, eta ezagutzen ez dugun edukia duen Plan Berezi baten mandatua egin duela dakigu soilik.

Hori dela eta, Talde Popularrak honako MOZIO hau aurkezten du:

1-. 1.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die bizilagunei jakinarazi diezaietela zer jarduketa egingo diren eta zer epetan egingo diren.

Los usuarios que cumplan todos los requisitos para acogerse a la máxima bonificación posible recibirán: 12,87 euros, los usuarios del contenedor marrón (11.065 usuarios beneficiados; 42,90 euros, los acogidos al

sistemaren bidez birziklatzen dutenek (724 erabiltzaile onuradun); eta 25,74 euro taldekako konpostatze sistemaren bidez birziklatzen dutenek (109 erabiltzaile onuradun).

Udalak adierazi du 1.000 erabiltzaile berri batu zaizkiela hobariak dituzten birziklatze sistemei, eta, guztira, 24.717 familia daudela alta emanda. Dena den, 2017ko onuradunei buruzko datu horiek 2016koekin alderatuz gero, argi ikusten da geldialdi bat izan dela hondakin organikoa birziklatzeagatik hobariren bat jasotzen duten erabiltzaile onuradunen kopuruan.

Hau da, izena emanda duten erabiltzaileen % 48k (erdiak baino gutxiagok) soilik jasotzen du hobariren bat, gainerakoek ez baitituzte betetzen horretarako ezarritako baldintza guztiak. Horrez gain, gaur egun hiriko etxebizitza parkea 88.675 etxek osatzen dutela kontuan hartuz gero (hala jasotzen da Udal Gobernuak duela pare bat hilabete aurkeztutako Donostiako Etxebizitza Planean), askoz ere datu hobeak lor daitezke. Izan ere, datuen arabera, eta beharrezko doiketak egin gabe, etxeen % 28 soilik dago izena emanda Joko Garbia ekimenean, eta etxebizitzen % 13,4k soilik jasotzen du hobariren bat hondakin organikoa birziklatzeagatik.

Agintaldiaren hasieratik, gure Talde Politikoak azpimarratu du zenbait neurri bultzatu behar direla herritarren konpromisoa sustatzeko; gaikako bilketaren eta hondakinen erabilera egokiaren aldeko konpromisoa sustatzeko, alegia. Horretarako, zenbait neurri proposatu dizkiogu Gobernu Taldeari, gehien birziklatzen duten erabiltzaileek zerga hobari bat izan dezaten eta hiritarrek zerga tratamendu orokor hobea izan dezaten. Nabarmendu nahi dugu administrazioek ez dietela erantzuten herritar gehienen jarrera arduratsuari, ez baita behar bezala kontuan hartu herritar horiek etxeko

compostaje individual (724 usuarios beneficiados); y 25,74 euros los acogidos al compostaje comunitario (109 usuarios beneficiados).

Estos datos de 2017 evidencian un estancamiento en el número de usuarios beneficiados por algún tipo de bonificación por el reciclaje de residuo orgánico respecto al año 2016, a pesar de que el Ayuntamiento dice que se han sumado 1.000 usuarios más a alguno de los sistemas de reciclaje bonificados, hasta llegar a las 24.717 familias dadas de alta.

Esto supone que apenas el 48% de los inscritos (menos de la mitad) reciben algún tipo de bonificación, por no llegar a cumplir la totalidad de los requisitos marcados para ello. Si, además, tenemos en cuenta que- según datos del Plan de Vivienda de San Sebastián, presentado hace un par de meses por el Gobierno Municipal-, actualmente, el parque de viviendas de la ciudad suma 88.675 unidades, los datos son claramente mejorables. Esto supone que, sin los ajustes necesarios, apenas el 28% de los hogares están inscritos al Joko Garbia, y que apenas el 13,4% de viviendas se beneficia de algún tipo de bonificación por reciclar el residuo orgánico.

Desde comienzos del mandato, nuestro Grupo político ha incidido en la necesidad de impulsar medidas para incentivar el compromiso de la ciudadanía con la recogida selectiva, y el uso adecuado de los residuos. Para ello, hemos propuesto diversas medidas al Equipo de Gobierno para bonificar fiscalmente a los usuarios que más reciclan, y para un mejor tratamiento impositivo general hacia la ciudadanía. Insistimos en la idea de que, las administraciones no están respondiendo a la actitud responsable de buena parte de la ciudadanía que se preocupa

hondakinen kudeaketa hobeaz eta ingurumena zaintzeaz arduratzen direla. Konpromiso edo sustapen politiko handiagoa behar da, gero eta hiritar gehiagorengana iristeko eta egoera hobetzeko.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen gaikako bilketaren tasak hobetu behar direla eta, ildo horretatik, zabor bilketaren zerbitzuaren tasa etxe bakoitzak sortzen duen hondakinen arabera kobratzea pentsatzen ari direla, baina gai hori etorkizunean aztertu beharrekoa dela, eta ez berehala.

Hondakinen gaiari buruzko kontzientziazioa hobetzeko prozesu bat garatzekoa da Udala. Prozesu hori hobetzearren ekarpenak egiteko eta birziklapena eta etxeko hondakinen gaikako banaketa serio hartzen ari diren herritarrak saritzeko aurkezten du Talde Popularrak MOZIO hau:

1.- Donostiako Udaleko Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Gobernu Taldeari azter dezatela gure hirian hondakin organikoak birziklatzen dituzten herritarrei kobratzen zaien kuotaren hobaria handitzeko aukera, hurrengo zerga ordenantzak berrikusten direnean.

Donostian, 2018ko ekainaren 15ean

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

por una mejor gestión de sus residuos domésticos, y del cuidado medioambiental. Hace falta un mayor compromiso e impulso político para llegar a más ciudadanos, y mejorar la situación.

En Comisión, el Concejal Delegado comentó que hace falta mejorar las tasas de recogida selectiva y que, en esa línea, se está pensando en cobrar la tasa del servicio de recogida de basura en función de la generación de residuos que haga cada hogar; pero que esta es una cuestión a plantear en un futuro, y no de manera inmediata.

Con el propósito de aportar mejoras al proceso que desarrolle el Ayuntamiento de mejorar la concienciación en materia de residuos, y de premiar a la ciudadanía que sí se está tomando en serio el reciclaje y la separación de residuos domésticos en origen, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, de cara a la próxima revisión de las Ordenanzas fiscales, estudien la posibilidad de aumentar la compensación en la cuota que se cobra a aquellos ciudadanos que reciclan sus residuos orgánicos en nuestra ciudad.

En Donostia/ San Sebastián, a 15 de Junio de 2018

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.14. Kontrol mozioa PP taldeak Miramar Jauregiari buruz egina.**

"José Luis Arrue Pintó jaunak, Alderdi Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkezten du, Zerbitzu Orokorretako Batzordeak 2018ko ekainaren 11n egindako bilkuran Miramar jauregia inauguratu zeneko 125. urteurrenaren gainean izapidetu zen interpelazioaren ondorio dena, Udalbatzan azter dadin.

AZALPENA

1893. urtean inauguratu zuen Maria Kristina Austriakoa erreginak Miramar jauregia. Berak eskatu zuen uda igarotzeko errege landetxe gisa eraikitzeko eta horri esker gure hiria gortearen eta gobernuaren egoitza bilakatzen zen hilabete batzuetan eta horrek, era berean, gure hiriaren irudi turistikoa nazioartean sendotzen lagundu zuen.

Aurten, 2018. urtean, Miramar jauregia inauguratu zeneko 125. urteurrena betetzen da. Hiriko ikonoetako bat da eraikin hori, Europa mailan erreferentziazkoa den helmuga turistiko gisa gure hiriak duen ospearen erakusgarri da eta garapen ekonomiko eta sozial nabarmena ekarri zion hiriari.

Gure hiriak urteurren hori nolabait ospatu edo gogoratu behar duela uste dugu eta Udal

**II.2.14. Moción de control que presenta el Grupo PP sobre Palacio Miramar**

"D. José Luis Arrue Pintó, concejal del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios Generales, celebrada el día 11 de 2018, relativa al 125 aniversario de la inauguración del Palacio de Miramar.

JUSTIFICACIÓN

En el año 1893, la reina María Cristina de Habsburgo inauguró el Palacio de Miramar, que ella misma había encargado construir, como Real Casa de Campo donde pasar sus veraneos, lo que convertía a nuestra ciudad en sede de la Corte y del Gobierno durante unos meses, y que contribuyó a consolidar la imagen turística internacional de nuestra ciudad.

Este año, 2018, se cumple el 125 aniversario de la inauguración del Palacio de Miramar, edificio que es uno de los iconos de la ciudad, y que da testimonio del esplendor de nuestra ciudad como destino turístico referente a nivel europeo, y que trajo un notable desarrollo económico y social a nuestra ciudad.

Entendemos que dicho aniversario merece algún tipo de celebración o recuerdo por parte

Gobernuak nolabait ospatzeko asmoa duela pentsatu nahi dugu.

de nuestra ciudad, y queremos creer que el Gobierno Municipal piensa conmemorar tal evento.

Batzordean jakinarazi zitzaigun herritarren aldetik zazpi informazio panel jartzeko proposamena dagoela eta Convention Bureau —Miramar jauregiaren kudeaketaz arduratzen den erakundea— hori baloratzen ari dela, aldeko erantzunaren zain.

En comisión se nos informó que hay una propuesta ciudadana de instalar siete paneles informativos, que está valorando el Convention Bureau como ente encargado de la gestión del Palacio de Miramar, esperando una respuesta positiva.

Era berean, jakinarazi ziguten ez dutela baztertzen bestelako proposamenik, hala nola hitzaldi bat eta/edo kontzertu bat.

Asimismo se nos manifestó que dentro de un todo no descartan algún otro tipo de propuesta como una conferencia y/o un concierto.

Hori dela eta, Alderdi Popularrak honako MOZIO hau aurkezten du:

Es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen dio proposamen sorta bat onartzeko datorren uztailean beteko den Miramar jauregiaren inaugurazioko 125. urteurrena ospatzeko.

El Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que aprueben un paquete de propuestas para celebrar el 125 aniversario de la inauguración del Palacio de Miramar, que se cumple en el mes de julio próximo.

Donostian, 2018ko ekainaren 15ean

En Donostia/ San Sebastián, a 15 de Junio de 2018

José Luis Arrue Pintó,
Alderdi Popularreko zinegotzia”.

José Luis Arrue Pintó
Concejal del Grupo Popular”.

Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.17. Kontrol mozioa IRABAZI DONOSTIA taldeak etxebizitza turistikoak eskaintzen dituzten plataformekin egindako kudeaketei buruz egina.**

“Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean etxebizitza turistikoak eskaintzen dituzten plataformekin egindako kudeaketei buruz egindako interpelazioaren harira.

AZALPENA

Legealdia hasi zenetik hamaika bider heldu diogu Donostiako turismo egoerari, azken urteotan izan duen gorakadagatik, nagusiki. Gorakada horren ondorioetako bat izan da Donostiako etxebizitza asko alokairu turistikorako gordetzen ari direla; horren ondorioz, halaber, etxebizitzen prezioa garestitu egin da, bai alokairuan hartzeko eta bai erosteko, eta gainera, bizitoki iraunkorrerako etxebizitzen eskaintza txikiagoa da orain.

Turismo erabilerako etxebizitzak arautzen dituen ordenantza indarrean sartu da, eta uste da 1.500 etxebizitza turistiko inguru iragartzen direla AirBnB plataforman; alegia, etxebizitza turistikoak eskaintzeko plataforma nagusian. Gainera, kalkulatutakoaren arabera, etxebizitza horien hiru herenek ez dituzte Plan Orokorraren zehaztapenak betetzen.

Donostia ez da arazo horri aurre egin behar dion hiri bakarra, ez aurrena. Beste hainbat hirik arazo bera dute, eta etxebizitzei erabilera turistikoa emateak dakartzan ondorio kaltegarriak eragozteko neurriak hartzen hasiak dira batzuk.

**II.2.17. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre las gestiones realizadas con las plataformas de comercialización de pisos turísticos.**

“Loïc Alejandro, concejal del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, fruto de la interpelación realizada este mes en Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio sobre las gestiones realizadas con las plataformas de comercialización de pisos turísticos.

JUSTIFICACIÓN

Desde que inició la legislatura llevamos dando vueltas a la situación del turismo en la ciudad, debido principalmente al auge del mismo en los últimos años. Este auge, ha tenido como consecuencia que muchas viviendas de la ciudad se estén destinando al alquiler turístico, lo que a su vez está provocando el encarecimiento de los precios tanto para alquiler como para compra, y por tanto también la menor oferta de pisos para vivienda permanente.

Ha entrado en vigor la ordenanza reguladora de viviendas de uso turístico, y se estima que hay unos 1500 pisos turísticos anunciados en AirBnB, que es la principal plataforma de comercialización de pisos turísticos. Asimismo se estima que 3⁄4 de la oferta no cumple las determinaciones del Plan General.

Donostia no es la primera ciudad que tiene que hacer frente a esta problemática. Otras ciudades con el mismo problema están llevando a cabo diferentes actuaciones de cara a evitar las consecuencias perjudiciales que el destino de las viviendas para uso

turístico tiene.

Neurri horietako bat etxebizitza turistikoak eskaintzeko plataformekin negoziatzea da, hiriko eskaintza xehatuari buruzko informazioa lortzeko edota erabiltzaileekin zenbait kudeaketa egiteko (tokiko araudiari buruzko ohartarazpenak, legezkotasun aitorpena…).

Una de esas medidas consiste en negociar con las plataformas comercializadoras de pisos turísticos de cara a obtener información precisa sobre la oferta pormenorizada en la ciudad, y/o hacer ciertas gestiones con sus usuarios (avisos sobre la normativa local, declaración de legalidad, …).

Duela urtebete, aho batez onetsi zen gai horri buruz egin genuen mozioaren puntu bat. Puntu horrek hau zioen:

Hace un año se aprobó por unanimidad un punto de una moción nuestra sobre el tema. Este punto decía:

“Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio egin ditzala beharrezkoak diren kudeaketak etxe turistikoak merkaturatzen dituzten enpresekin, bi helburu hauek lortzeko:

“El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al gobierno municipal a que realice las gestiones oportunas con las empresas comercializadoras de pisos turísticos, con el objetivo de que:

• Etxe bat erabilera turistikorako iragartzen dutenean, erabiltzaileei jakinaraztea zer araudi bete behar duten.

• Etxe turistikoen iragarpenetan, iragarlearen adierazpen bat txertatzea, etxeak indarrean dagoen legedia betetzen duela aitortuz.

• informen a sus usuarios de la normativa que deben respetar cuando estos anuncian una vivienda para uso turístico.

• incorporen en los anuncios de vivienda de uso turístico una declaración del anunciante indicando que la vivienda cumple con la normativa vigente.”

Batzordean, gobernuak azaldu zuen tokiko plataformekin asko hitz egin zuela (batez ere ordenantzari buruz) eta bilera bat prestatzen ari zela AirBnB plataformarekin, baina beharrezkoa zela elkarrizketak Eusko Jaurlaritzarekin koordinatzea; izan ere, Eusko Jaurlaritzak turismo erabilerako etxebizitzak eskaintzeko online plataforma nagusiekin hitz egiteko asmoa zuen. Gobernuak adierazi zuenez, hau eskatu nahi die plataformei: webgunean jartzea ea etxebizitza turistiko batek legea betetzen duen.

En comisión, el Gobierno comentó que se ha conversado mucho con las plataformas locales (sobre todo entorno a la ordenanza) y que se está preparando una reunión con AirBnB, pero que es necesario coordinar las conversaciones con el Gobierno Vasco que también está con intención de conversar con las principales plataformas online de comercialización de viviendas de uso turístico. Asimismo comentó que en principio la idea es pedir a las plataformas que indiquen en su web si un piso turístico cumple o no con la legalidad.

Gure ustez, beharrezkoa da Donostiako Udalak zuzeneko negoziazio kanala izatea online plataforma nagusiekin (AirBnB,

Creemos necesario que el Ayuntamiento de San Sebastián tenga un canal de negociación directo con las principales plataformas online

HomeAway…), arrazoi hauengatik:

• Eusko Jaurlaritzak ez du udalerri bakoitzeko hirigintza araudia ezagutu behar.

• Probintziako hiriburua gara.

• Etxebizitza turistiko asko dituen hiri bat gara.

Halaber, gure iritziz, plataformei eskatu egin behar zaie Udalari erregulartasunez eta zehaztu beharko litzatekeen maiztasunarekin emateko hirian eskaintzen dituzten ostatu turistikoen zerrenda. Hartan, etxebizitza horien helbide zehatza adierazi beharko litzateke, baina ez, jakina, titularren nortasuna. Zerrenda horri esker, etxebizitza turistiko bakoitzak indarreko araudia betetzen duen ala ez egiaztatu ahal izango da, eta, beraz, Herritarrekiko Bitartekaritza eta Arreta Unitatearen lana erraztu. Oraingoz, unitate horren lana salaketetan oinarrituta dago bereziki; salaketa bat dagoenean, detektatutako etxebizitza turistikoak legea betetzen duten ala ez egiaztatzen du.

Hori dela eta, hauxe da aurkezten dugun

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio zuzeneko harreman kanal bat ezar dezan turismo erabilerako etxebizitzak eskaintzen dituzten nazioarteko plataforma nagusiekin, haien eskaintzak indarreko araudia betetzen duen ala ez kontrolatzeko eta haren egoera hobetzeko.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio turismo erabilerako etxebizitzak eskaintzen dituzten nazioarteko plataforma nagusiei eska diezaien turismo erabilerako etxebizitza horien zerrenda erregulartasunez emateko, etxebizitzen

(AirBnB, HomeAway, …) porque:

• no es papel del Gobierno Vasco conocer la normativa urbanística de cada municipio

• somos capital de provincia

• somos una ciudad donde la presencia de pisos turísticos es muy importante

Creemos igualmente necesario pedir a las plataformas que entreguen al Ayuntamiento, de forma regular y a una frecuencia que quedaría por definir, el listado de los alojamientos turísticos que comercializan en la ciudad, indicando la dirección exacta de las mismas y, evidentemente, ocultando la identidad de los titulares. Con este listado, se podrá verificar la compatibilidad de cada piso turístico con la normativa vigente, y así facilitar el trabajo de la Unidad de Mediación y Atención Comunitaria. De momento esa unidad se basa principalmente en denuncias para comprobar que las viviendas destinadas a uso turístico detectadas cumplen con la legalidad.

Por todo ello, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a establecer un canal directo con las principales plataformas internacionales de comercialización de viviendas de uso turístico, con el fin de mejorar y controlar la adecuación de su oferta a la normativa vigente.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a pedir a las principales plataformas internacionales de comercialización de viviendas de uso turístico, que comuniquen de forma regular el listado de las viviendas de uso

helbide zehatza adierazita.

Donostia, 2018ko ekainaren 15a

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia".

turístico que comercializan, indicando la dirección exacta de las mismas.

Donostia a 15 de junio de 2018

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Loïc Alejandro jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. Loïc Alejandro en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.18. Kontrol mozioa IRABAZI DONOSTIA taldeak Francisco Escudero Kontserbatorioaren egoerari buruz egina.**

"Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean hil honetan bideratutako interpelazioaren ondorio da.

AZALPENA

1998. urtean udalak Easo kaleko eraikina Eusko Jaurlaritzari laga zionetik, Francisco Escudero Kontserbatorioa han egon da eta han jarraitzen du. Hala eta guztiz ere, askotan salatu dira eraikinaren gabeziak eta hainbat

**II.2.18. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre la situación del Conservatorio Francisco Escudero.**

"Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de Servicios a las Personas del presente mes.

JUSTIFICACIÓN

Desde que el Ayuntamiento cedió en 1998 el edificio de la calle Easo al Gobierno Vasco, el conservatorio Francisco Escudero sigue en él. Aun así, en numerosas ocasiones se han denunciado las carencias de ese edificio y las

araudiren arau-hausteak; horregatik, zentroko organo gorena arazoari irtenbidea bilatu nahian dabil eta horretarako bildu da Hezkuntza Saileko ordezkariekin, alderdi politikoetako ordezkariekin eta baita ahaldun nagusiarekin eta alkatearekin ere.

Era berean, arartekoak ere interesa azaldu du kontserbatorioaren egoera ezagutzeko; hain zuzen ere, 303/2010 Errege Dekretuko eskakizunetara egokitzeko aurrera eramaten ari diren jardueren berri izateko, hau da, irisgarritasunari, segurtasunari, energia aurrezkiari eta eraginkortasun energetikoari buruzko araudiak betetzeko zer neurri aurrez ikusi diren jakin nahi du.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak adierazi du udalarekin batera aukera ezberdinak aztertzen ari dela kontserbatorioarentzat kokaleku egokia topatzeko eta behar bezala erantzuteko kokapen, neurri eta bestelako zerbitzu beharrei.

Hala eta guztiz ere, denbora aurrera doa eta ikasleek, irakasleek eta familiek txiki geratutako eraikinak sortzen dituen eragozpenak sufritzen jarraitzen dute eta, gainera, eraikin hori ez da gai gaur egungo eskaerari erantzuteko eta ez ditu irisgarritasun, segurtasun eta eraginkortasun energetikoko irizpideak betetzen.

Euskotrenen egungo geltokia lurperatu ondoren Easo plazan libre geratuko litzatekeen eremuan kontserbatorioa jartzea planteatu dute. Aukera bat litzateke, baina denok dakigu urte dezente igaro behar direla hori egi bihurtzeko: Euskotreneko lanek aurrera egin behar dute, Plan Orokorra aldatu behar da, eraikin berri bat egiteko inbertsio handia egin behar da eta, azkenik, eraikin hori egokitu egin

infracciones a las diversas normativas, y el Órgano Máximo de Representación del centro está buscando una solución al problema, para lo que se han reunido con representantes del Departamento de Educación y de los partidos políticos, así como con el diputado general y el alcalde.

De igual modo, el Ararteko también se ha interesado por la situación del Conservatorio, concretamente para averiguar qué actuaciones se están llevando a cabo para adaptarse a las exigencias del Real Decreto 303/2010, es decir, qué medidas han previsto para cumplir la normativa sobre accesibilidad, seguridad, ahorro energético y eficiencia energética.

El Departamento de Educación del Gobierno Vasco ha manifestado que está analizando con el Ayuntamiento las diferentes posibilidades, para encontrar un emplazamiento adecuado para el Conservatorio, para responder adecuadamente las necesidades de situación, dimensiones y otros diversos servicios.

Sin embargo, el tiempo pasa y el alumnado, profesorado y familias siguen sufriendo las inconveniencias derivadas de un edificio que se ha quedado pequeño y que no es capaz de dar respuesta a la demanda actual, ni cumple criterios de accesibilidad, seguridad o eficiencia energética.

Se ha planteado ubicar al conservatorio en la zona que quedaría libre en la plaza de Easo tras soterrar la actual Estación de Euskotren. Esta podría ser una alternativa, sin embargo a nadie se le escapa que habrán de pasar muchos años hasta que se pueda ver hecha realidad: hace falta que avancen las obras de Euskotren, emprender una modificación del Plan General y una importante inversión en la

behar da hezkuntza erabileratik sortutako beharrei erantzuteko. Hori dela eta, beharrezkoa da kontserbatorioak egun dituen arazoei irtenbidea berehala bilatzea.

construcción de un nuevo edificio, y por último acometer la adecuación del mismo para satisfacer las necesidades derivadas de un uso educativo. Por lo tanto, es necesario buscar ya una solución a los problemas actuales del conservatorio.

Bestalde, Gobernu Zentralak hainbat eraikin ditu hirigunean gutxiegi erabiltzen direnak edo erabiltzen ez direnak: horren adibide lirateke Gobernuaren Ordezkariordetzak Pio XII.aren plazan duen eraikina, Idiakez kaleko bulegoetarako eraikina…

Por otra parte son varios los edificios que el Gobierno Central posee en el centro de la ciudad infrautilizados o en desuso: sería el caso del Edificio de la subdelegación del Gobierno en Pio XII, el edificio de oficinas de la calle Idiakez,…

Azkenik, kontuan izan behar da ikasle asko lurraldeko hainbat tokitatik etortzen direla eta, beraz, haien joan-etorriak errazteko hirigunetik hurbilago dauden kokalekuak bilatzea komeni dela.

Por último hay que tener en cuenta que siendo numeroso el alumnado que viene desde diferentes parte del territorio es conveniente explorar aquellas ubicaciones más céntricas para facilitar el desplazamiento de estos.

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio dauden aukerak aztertzeko, datorren 2019-2020 ikasturtea hasi baino lehen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin, Kontserbatorioko Zuzendaritzarekin eta IGEarekin, Francisco Escudero Musika Kontserbatorioak dituen beharrei erantzun eta egungo kokapenak sortzen dituen arazoak konpon daitezen.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a que, antes de que inicie el próximo curso 2019-2020 y junto con el Departamento de Educación del Gobierno Vasco, la Dirección del Conservatorio y el AMPA analicen las alternativas que hay con el fin de dar una respuesta a las necesidades que tiene el Conservatorio de Música Francisco Escudero de manera que se resuelvan los problemas de su ubicación actual.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio gutxiegi erabiltzen diren edo erabiltzen ez diren Gobernu Zentralaren jabetzako eraikinetan kontserbatorioa kokatzearen bideragarritasuna aztertzeko.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a explorar la viabilidad de ubicar las dependencias del conservatorio en edificios propiedad del gobierno central infrautilizados o en desuso.

3. Donostiako Udalbatzak gobernuari eskatzen dio udal taldeekin eta Francisco Escudero Musika Kontserbatorioko Zuzendaritzarekin gai horri dagokionez egiten dituen kudeaketen

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno a informar de las gestiones que realice respecto a este asunto con los grupos municipales y con la

berri emateko.

Donostia, 2018ko ekainaren 15a

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea”.

Dirección del Conservatorio de Música Francisco Escudero.

Donostia a 15 de Junio de 2018

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Naiara Sampedro Perez, Maria Luisa Garcia Gurruchaga andreak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Amaia Martín Garín, D. José María Murguiondo Casal, D.ª Naiara Sampedro Pérez, D.ª María Luisa García Gurruchaga y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**18. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 18:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**18. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 18:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 8 – (5) EH BILDU, (3) PP.**

**18. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 18:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.19. Kontrol mozioa IRABAZI DONOSTIA taldeak laikotasunari buruz egina.**

“Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa hil honetako Batzordean bideratutako interpelazioaren ondorio da.

AZALPENA

Laikotasuna botere zibilaren subiranotasunaren, norberaren askatasunaren eta demokraziaren berezko nortasun ezaugarri bat da. Gizarte demokratiko eta sekularizatuek hainbat aldarrikapen historiko gauzatzea lortu dute: kontzientzia eta kultu askatasuna, hilerrien sekularizazioa, ezkontza zibila eta dibortzioa, ikerketa askatasuna, hezkuntza laikoa, erlijioaren inposizio-eza irakaskuntzan eta baterako hezkuntza. Gaur egun, horiek guztiak herritar gehien-gehienen ondarea dira.

Beharrezkoa da banakako kontzientzia askatasuna bermatzea eta sustatzea, eta Estatua erlijio konfesio edo ideologia ororekiko independentea izatea. Horri esker, administrazio publikoen neutraltasun ideologikoa berma daiteke.

**II.2.19. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el laicismo.**

“Amaia Martin Garin, portavoz de Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en Comisión este mes.

JUSTIFICACIÓN

La laicidad es una seña de identidad que es consustancial a la soberanía del poder civil, la libertad individual y la democracia. Reivindicaciones históricas como la libertad de conciencia y de culto, la secularización de los cementerios, el matrimonio civil y el divorcio, la libertad de investigación, la educación laica y la no imposición de la religión en la enseñanza o la coeducación son conquistas de una sociedad democrática y secularizada que hoy son patrimonio compartido por la inmensa mayoría de los ciudadanos.

Es preciso garantizar y fomentar la libertad de conciencia individual y la independencia efectiva del Estado con respecto a cualquier confesión religiosa o ideología particular, asegurando -así- la neutralidad ideológica de las administraciones públicas.

Legealdia hasi zenetik, Irabazi Donostia taldeak hainbat ekimen aurkeztu ditu, hiri demokratiko baten garapena bermatze aldera, Udalak eta udalbatzak erlijio konfesio ororekiko benetako independentzia lor dezaten.

Desde Irabazi Donostia hemos presentado desde el comienzo de la legislatura numerosas iniciativas al objeto de garantizar el desarrollo de una ciudad democrática donde el ayuntamiento y su corporación caminaran hacia esa independencia efectiva respecto a cualquier confesión religiosa.

Hain zuzen, hil honetan, gobernatzeko programa bete behar dela azpimarratu nahi dugu, agur zibilak egiteko esparruen eskaintza bermatzeko.

Este mes, precisamente, insistimos en la necesidad de dar cumplimiento del programa de gobierno garantizando la oferta de espacios para el desarrollo de despedidas civiles.

Orobat, gure ustez, funtsezkoa da Udalak, Donostiako herritar guztien administrazioa den aldetik, erlijio izaerako ekitaldi eta ospakizunetara ordezkaritzarik ez bidaltzea; hain zuzen, Andre Maria Basilikan uda oro egiten den Salbearen ekitaldian parte hartzeari uko egiten diogu.

Igualmente, consideramos fundamental que el ayuntamiento como administración de toda la ciudadanía donostiarra evite en cuanto representación institucional participar en actos y celebraciones religiosas, concretamente, rechazamos la implicación en el acto de la Salve que cada verano se celebra en la Basílica de Santa María.

Hil honetako batzordean, Salbearen ekitaldia dela eta, Udala Andre Maria Basilikako erretorearekin koordinazio lanetan ote zegoen galdetu zitzaion Alkateari. Alkateak erantzun zuen harreman publikoen udal lana laguntzakoa zela eta ez zegoela Udalaren mende Andre Maria Basilikan ordezkari publikoentzat lekua gordetzea.

En la comisión de este mes, al ser interpelado el Alcalde sobre la implicación del ayuntamiento en la coordinación con el rector de Santa María para el acto de la Salve, el Alcalde relató que el trabajo municipal por parte de relaciones públicas es de apoyo y que no depende de ellos la reserva de espacio en Santa María para los representantes públicos.

Irabazi Donostian uste dugu akordioak lortu behar direla erlijio ekitaldietara joaten diren kargu publikoak norberaren izenean joateko, eta, beraz, Udalak ekitaldi horiei ez laguntzeko, eta leku nagusietan egotea ez onartzeko.

Desde Irabazi Donostia consideramos que es preciso llegar a acuerdos para que la presencia de cargos públicos en actos religiosos sean exclusivamente a título individual y por tanto no se preste ningún apoyo desde el ayuntamiento ni se acepte estar en lugares preeminentes en tales actos.

Hori dela eta, hau aurkezten dugu:

Por este motivo, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCION DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak udal

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia /

gobernuari eskatzen dio erlijio izaerako erriturik edo ospakizunik susta ez dezan, eta antolatzen dituen ekitaldi guztiak zibilak izateko.

San Sebastián insta al Gobierno Municipal a no promover ritos ni celebraciones religiosas de ningún tipo, siendo todos los actos organizados por éste exclusivamente de carácter civil.

2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio konpromiso bat har dezan, bere karguaren jardunean edo bere funtzioak egiten dituenean, erlijio irudiei mendetasun edo gurtza keinurik ez egiteko, eta erlijio ekitaldi horietan, hala nola Salbean, ez parte hartzeko. Konpromiso hori udalbatzako gainerako kideek eta udal administrazioaren zerbitzuan lan egiten duten pertsonek bete beharko dute. Beraz, ekitaldi horietan parte hartuz gero, ez dira kargu publikoak izateagatik lehentasuneko lekuetan jarriko.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a asumir un compromiso, que sea extensible al resto de miembros de la corporación local y del personal al servicio de la administración municipal para no mostrar, en el ejercicio de su cargo o de sus funciones, ningún gesto de sumisión o veneración de personas o imágenes religiosas, ni participar en función de su cargo en dichas manifestaciones religiosas, tales como la Salve; de modo que, de acudir a tales actos no se sitúen en lugares preferentes por su condición de cargo público.

3. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio kontzientzia askatasunaren eta laikotasunaren udal bulego bat sor dezan, udal talde politikoei, elkarteei eta herritarrei irekia, udalerrian laikotasunari, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalari, tolerantziari, pentsamendu eta kontzientzia askatasunari, eta, beraz, erlijio askatasunari buruzko informazio kanpainak egiteko.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a crear una Oficina municipal de la libertad de conciencia y de la laicidad, abierta a la participación de los grupos políticos municipales, asociaciones y entidades ciudadanas con el objetivo de promover campañas informativas en el ámbito municipal dirigidas a toda la ciudadanía, sobre el significado de la Laicidad, la Declaración Universal de los Derechos Humanos, la Tolerancia, la libertad de pensamiento y de conciencia y, por tanto, la libertad religiosa.

4. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio ESTATU LAIKO BATEN ALDEKO UDALERRIEN SAREAren sorrera sustatu eta hari atxikitzeko, sare horretan sartu dela jakinarazteko eta erabaki hori info@redmunicipioslaicos.org helbide elektronikora bidaltzeko. Hain zuzen, helbide horren bidez, sare horren sorrera koordinatzen ari dira, hurrengo biltzar konstituziogilean behin betiko sortu arte.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a promover y adherirse a la constitución de la RED DE MUNICIPIOS POR UN ESTADO LAICO, informando de su incorporación a dicha Red y el envío de esta decisión al correo info@redmunicipioslaicos.org donde se está coordinando la creación de esta RED hasta su constitución definitiva en su próxima asamblea constituyente.

Donostia, 2018ko ekainaren 15a

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea".

Donostia a 15 de Junio de 2018

Fdo Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak, Alkate-Udalburuak eta Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Amaia Martín Garín, D. José María Murguiondo Casal, D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte, Alcalde-Presidente y D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**19. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 19:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 13 – (6) PSE-EE, (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 11 – (8) EAJ-PNV, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 13 – (6) PSE-EE, (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 11 – (8) EAJ-PNV, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**19. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 19:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (8) EAJ-PNV, (6)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (8) EAJ-PNV, (6)**

**PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.**

**PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.**

**19. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 19:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.**

**19. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 19:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.**

---------------

**II.2.20. Kontrol mozioa EH BILDU taldeak Maria Kristina zubiaren egituran izandako kalteen konponketa lanei buruz egina.**

“Ricardo Burutaran Ferre EH Bildu udal taldearen zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, Maria Kristina zubiaren egituran izandako kalteen konponketa lanei buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, udalbatzan azter dadin. Joan den ekainaren 11n Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) egindako

**II.2.20. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre daños estructurales en el puente María Cristina.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para su debate en Pleno sobre la reparación de los daños estructurales del puente María Cristina. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de

interpelazioaren ondorio da mozioa.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko udatik, Maria Kristina zubiaren egituran izandako kalteei buruzko azterketa bat du Udal Gobernuak bere esku. Azterketa hark oihartzuna izan zuen komunikabideetan, eta azterketa hartan esaten zen lau fase beharko zirela aipatutako zubi horri beharrezkoa den segurtasuna eta apaingarriak itzultzeko lanak egiteko.

Egin beharreko lanen artetik, lehen fasea baino ez da egin, hau da, euskarri guztien egiturak konpondu dira, bai eta kanpoaldeko beheko lauza ere kaltetuen zegoen tokian.

Baina ez dakigu bigarren, hirugarren eta laugarren faseak egin diren ala ez. Zentzu horretan, komunikabideek jakinarazi zuten bigarren fasean, hau da, faserik garestienean, konponduko zirela lehenengo fasean tratatu gabeko kanpoaldeko beheko lauzak konponduko zirela, hirugarren fasean konponduko zirela barnealdeko goiko lauzak, eta hirugarren fasean tratatu gabeko goiko lauzak konponduko zirela laugarren fasean.

Maria Kristina zubia oso erabilia da. Motordun ibilgailu asko igarotzen dira egunero-egunero zubi horretatik, eta horietako asko, gainera, autobus-geltokira sartzera doazen autobusak dira. Horrez gain, asko dira tren- eta autobus-geltokitik datozen edo hara doazen oinezkoak, bai eta Egia auzora edo auzotik joan-etorrian dabiltzanak.

Bestalde, Maria Kristina zubia HEOBPBan babestutako elementua dela gogoratu behar da.

Obras y Servicios Públicos el pasado 11 de junio.

JUSTIFICACIÓN

El Gobierno Municipal dispone, desde verano de 2016, de un estudio sobre los daños estructurales del puente de María Cristina. En dicho estudio, del que se hicieron eco los distintos medios de comunicación, se informaba de que eran cuatro las fases a realizar para devolver al citado puente el debido estado de seguridad y ornato.

De las actuaciones a acometer, únicamente se ha realizado la primera fase, consistente en la reparación estructural de todos los apoyos y la losa inferior exterior en su zona más dañada.

Sin embargo, no tenemos noticia de que se hayan acometido las fases segunda, tercera y cuarta. En este sentido, las citadas informaciones daban a conocer que la segunda fase, la más cara, incluiría la reparación de la losa inferior exterior no tratada en la primera fase; la tercera fase se encargaría del tratamiento de la losa superior interior; mientras que la cuarta fase correspondería al tratamiento de la losa superior no tratadas en la fase tercera.

El puente María Cristina tiene un grado de utilización muy alto, tanto por el paso de vehículos de motor -con especial incidencia del paso de autobuses, que tiene que soportar diariamente al ser acceso a la estación de autobuses-, como por el peatonal de todos aquellas personas que se dirigen o vienen de la estación del tren, de la estación de autobuses o al barrio de Egia.

Por otra parte, es preciso recordar que se trata de un elemento protegido por el PEPPUC.

Aipatutako zubi horrek komunikabide gisa zernolako garrantzia duen eta ibilgailuek nahiz oinezkoek oso maiz erabiltzen dutela kontuan hartuta, eta Astiñene zubian gertatutakoa ikusita, ez dugu ulertzen zergatik burutu den soilik hura konpontzeko lehen fasea, eta zergatik ez diren burutu gainerako hiruak zubiaren egituran izandako kalteei buruzko azterketa egin eta ia bi urte igaro direnean.

Habida cuenta de la importante labor de comunicación que desarrolla el citado puente, de su grado de utilización, del tránsito rodado y peatonal que soporta, del precedente de lo acontecido con el puente de Astiñene, no entendemos las razones por las que cuando han transcurrido casi dos años desde la finalización del estudio de las actuaciones a acometer en el puente María Cristina sólo se ha acometido la primera de las actuaciones previstas, estando pendientes el resto.

Gai horri buruz galdetu genionean, baietz, zubiaren egituran izandako kalteak konpontzeko lau faseetako hiru oraindik burutzeke daudela erantzun zigun Udal Gobernuak. Hala ere, komunikazio azpiegitura horren elementu estetikoak edo apaingarriak berritzeko proiektua lizitatua zegoen.

Interpelado al respecto el Gobierno Municipal nos respondió que, efectivamente, seguían pendientes de ejecución tres de las cuatro fases de reparación de los daños estructurales. No obstante se había sacado a licitación el proyecto de restauración de los elementos estéticos u ornamentales de la citada infraestructura de comunicación.

Egia esan, erantzunak harritu gintuen, garraio publikoko beste azpiegitura batzuk lotzeko orduan garrantzia handia duen zubi baten egituraren elementuak konpondu beharrari buruz ari baikara hizketan.

La verdad es que la respuesta nos sorprendió, teniendo en cuenta que estamos hablando de la necesidad de reparación de elementos estructurales de un puente que cumple una importante función de comunicación con otras infraestructuras de transporte público.

Hori dela eta, zinegotzi izenpetzaile honek KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

Por todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1- Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio beharrezkoak diren aginduak eman ditzan, lehenbailehen eta progresiboki, Maria Kristina zubiaren egituran izandako kalteak konpontzeko faseen lizitazioa martxan jartzeko.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a dar las instrucciones necesarias para sacar a licitación, a la mayor brevedad y progresivamente, las distintas fases de reparación de los daños estructurales del Puente de María Cristina.

Donostian, 2018ko ekainaren 15ean

En Donostia a 15 de junio de 2018.

Sin.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Sin: Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del grupo municipal de EH BILDU".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutaran Ferré, D. Loïc Alejandro y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO HIRURAK HOGEITA BI GUTXIAGOTAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS CATORCE HORAS Y TREINTA Y OCHO MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:**